



VIII.AXARI TRAIL – COVID ARAUDIA 2021

OSASUN EGOERA – COVID19

Covid araudi honetan, araudi orokorretik eta orain arteko urteroko jardunetik ezberdinak izango diren puntuak zehaztuko ditugu:

0.- ARAU OROKORRAK

Egoerak hala eskatuta, arau orokor hauek kontutan hartzea eskatzen dizuegu:

1. Esan beharrik ere ez litzateke egon beharko baina: COVID 19 sintomarik baduzu, ez etorri mesedez.
2. Leku irekietan izanik ere, herrigunean musukoarekin ibiltzea eskatzen dizuegu: beroketak egiterakoan, irten aurreko denboran...
3. Denboraz ibiltzea dortsala jaso eta irteera etortzerakoan, egoera honetan, behar baino lasaiago eta kontu haundiagorekin egin behar bait ditugu banaketa lan hauek.
4. Ez da kontsigna eta dutxa zerbitzurik egongo aurtengo edizioan.
5. Lasterketa amaitu orduko, musukoa jartzea derrigorrezkoa izango da.

1.- DORTSAL BANAKETA

Dortsalak eta lasterkariaren poltsa UDAL PILOTALEKUAN banatuko dira:

Larunbatean: 17:00etatik-20:00tara

Lasterketa egunean: 07:30etatik – 09:00era.

* OHARRA:

1. Dortsala jasotzera, dortsalaren titularrak etorri beharko du eta DNI-a erakutsi beharko du.
2. Lasterkariaren poltsaren billa etortzen ez denak, berarekiko dituen eskubide guztiak galduko ditu. Ez da korrikalariaren etxera bidaltzeko eskaririk onartuko.

2.- IRTEERA. LEKUA ETA ORDUA

Irteera: goizeko 09:30etan. Herriko plazan

1. Axari Trail eta Axari Trail txikiko lasterkariak denak batera aterako dira.
2. Irteera puntuan, denbora guztian musukoarekin egon beharko da.
3. Irteera eman eta 200m tara, markaturiko leku batetik aurrera, korrikalariak musukoa kentzeko moduan izango dira

3.- HORNIDURA

Helmugakoaz gain, 6 horniketa puntu atonduko dira Axari Trail lasterketarako eta 3 hornikuntza puntu Axari Trail Txiki lasterketarako. Postu hauetan freskagarriak eta janaria eskainiko zaizkie partehartzaileei.

1. Anoa guneeetan ez da edalontzirik egongo.
2. Partehartzaile bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du. Hau honela, eta batipat, lehen anoa guneko pilaketak ekiditeko, korrikalarie beraien botilin edo Flask-ak hasieratik beteta eramateko gonbitea egiten diegu.

4.- HELMUGA

Helmugan sartu orduko, partehartzaile bakoitzak bere musukoa jarri beharko du.

Helmugatik anoa gunerako bidean eta han jan edanak hartu ondorengo momentuan berriro ere musukoa erabili beharko da.

5.- SARI BANAKETA

Sari banaketa ordua: 12:30etan plazan.

1. Dutxa zerbitzurik egongo ez denez, sari banaketa ahalik eta azkarren egin saiatuko gara.
2. 12:30ak aurretik sari banaketako podium guztiak osatu direla ikusiko balitz, sari banaketa aurreratu egingo litzateke.
3. Podium-ean edo sariren bat jasotzeko postuetan sartu zarenaren zantzuak badituzu, helmugatik gertu egon eta jarriko diren sailkapenetan begiratzea eskertuko genizueke, sari banaketa egiten denean denon lana errezte aldera.

6.- SARIA EKONOMIKOAK

AXARI TRAIL

Scratch Sailkapena Gizonezko / Emakumezkoak

- 1.- Txapela, 300 € eta garaikurra.
- 2.- 200 € eta garaikurra.
- 3.- 100 € eta garaikurra.

Errekorra egiten duenak sari berezi bat izango du: 100€

Mutiletan: 1:58:22 (Aritz Egea 2014)

Nesketan: 2:19:20 (Maite Maiora 2015)

AXARI TRAIL TXIKI lasterketak ez du sari ekonomikorik izango.

7.- PODIUM-ak

AXARI TRAIL: Kategori hauetako lehen hirurekin egingo dira podium-ak:

- Scratch Sailkapena Gizonezko / Emakumezkoak
- BETERANO Gizonezko / Emakumezkoak

AXARI TRAIL TXIKI: Kategori hauetako lehen hirurekin egingo dira podium-ak:

- Scratch Sailkapena Gizonezko / Emakumezkoak
- KADETE Gizonezko / Emakumezkoak

* Podium hauetaz aparte, zehazteke dauden beste sailkapen batzuk egingo dira: Herritarrak, Goierri Kopa,...

8.- ARAUDIAREN ONARPENA

Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, araudi hau onartzen dute.

ARGIBIDEAK: info@axaritrail.eus